

FITXATEGIAK TRUKATUZ ZERGA INFORMAZIOA ESKATU ETA KONTSULTATZEKO ZERBITZUA

1.- SARRERA

2.- ZERBITZURAKO SARBIDEA

3.- FUNTZIONAMENDUA

3.1. BAIMENDUTA DITUEN ZERGA INFORMAZIO MOTAK ESKATZEKO AUKERA

3.2. EGINDAKO ESKAEREN EGOERA IKUSI ETA JASOTZEKO AUKERA

1.- SARRERA

Agiri honetan azalduta dago Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak Entitate Publikoen eskura jartzen duen zerga informazioa eskatu eta kontsultatzeko zerbitzua. Informazioa eskatu eta emateko, fitxategi informatikoak Internetez igorri edo trukutzen dira: eskatzeko fitxategiak .txt luzapena izan behar du eta erantzuna, berriz, exceleko .csv luzapenean jasotzen da. Gainera, sistemak zergadun bakoitzari buruzko zerga informazioa biltzen duen PDF luzapeneko beste fitxategi bat ere sortzen du, gero inprimatu daitekeena. Horren helburua da informazio hori paperean jasota geratzeko aukera ematea, badaezpada.

Zerbitzu hau aproposa da pertsona edo entitate askori buruzko informazio eskaerak egiteko: hau da, eskaera batean pertsona eta entitate askori buruz mota bereko zerga informazioaz galdetzen da eta erantzun batean pertsona edo entitate horiei guztiei buruz eskatutako informazioa bidaltzen da.

2.- ZERBITZURAKO SARBIDEA

Zerbitzuan sartzeko helbidea hau da:

<https://www.gipuzkoa.eus/ataria>

Hor sartuta, SARRERAKO PANELA ikus daiteke. Bertan, bere burua identifikatu behar du erabiltzaileak, ziurtagiri digitala erabiliz.

The screenshot shows the website header with the logo of Gipuzkoako Foru Aldundia and navigation links for 'Euskara' and 'Castellano'. The main banner reads 'Tramiteak eta zerbitzuak Internet bidez' and 'Gipuzkoataria'. Below the banner, there are two main sections: 'SARRERAKO PANELA: AUTENTIFIKAZIOA' and 'Aukera nagusiak'. The 'SARRERAKO PANELA' section includes a heading 'Hautatu Gipuzkoatarian sartzeko modua' and a description of the authentication process. It features two login forms: 'Pasahitz operatiboa' with fields for identification number and password, and 'Giltza' with a 'giltza@' logo and instructions for digital signature. The 'Aukera nagusiak' section lists various services and news items, such as 'Sarrerako panela: autentifikazioa' and 'Zerbitzu honi buruzko informazioa'. The footer contains copyright information for 2010 and links to 'Lege oharra', 'Zerbitzari segurua', and 'Pribatutasun politika'.

Behin bere burua identifikatuta, erabiltzaileak **Herri erakundeak** ⇒ **Erabilgarri dauden zerbitzu guztiak** aukeratu beharko du (eskuineko zutabean) hurrengo pantaila honetan:

The screenshot shows the website header with the logo of Gipuzkoako Foru Aldundia and navigation options for Euskara and Castellano. The main banner features the text 'Tramiteak eta zerbitzuak Internet bidez' and 'Gipuzkoataria'. Below the banner is a search bar and a 'SAIOA ITXI' button. The main content area is divided into two columns. The left column is titled 'ZERBITZU ERABILGARRIAK' and lists various services with expandable icons. The right column is titled 'ZERGABIDEA' and contains several menu items, with 'Erabilgarri dauden zerbitzu guztiak' circled in red.

Gipuzkoako Foru Aldundia Euskara | Castellano

Tramiteak eta zerbitzuak Internet bidez
Gipuzkoataria

Giltza Idazki Desktop On-line laguntza SAIOA ITXI

ZERBITZU ERABILGARRIAK

Aukeratu internet bidez egin nahi duzun zerbitzu edo tramitea gure departamentuetan eskura daudenen artean:

- ⊕ **Diputatu Nagusia**
- ⊕ **Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola**
- ⊕ **Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa**
- ⊕ **Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka**
- ⊕ **Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa**
- ⊕ **Ogasuna eta Finantzak**
- ⊕ **Bide Azpiegiturak**
- ⊕ **Gizarte Politikak**
- ⊕ **Ingurumena eta Obra Hidraulikoak**
- ⊕ **Hainbat departamenturen zerbitzu erkideak**
- ⊕ **Dirulaguntzak**

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOA
NOTIFICACIÓN ELECTRÓNICA

ZERGABIDEA

Azken zerbitzuak

- > Ziurtagiriak Internet bidez
- > **BIH - Kontsultak eta formularioak**
- > Jakinarazpen elektronikoen postontzia
- > Hirilurren Katastroa - Datuak bilatzea
- > jabearen arabera
- > Herritarren datuen foru errolda

Ordezkaritzen gunea

- > **Ordezkatua hautatu**
- > Ordezkaritzen alta eta kudeaketa

Herri erakundeak

- > **Erabilgarri dauden zerbitzu guztiak**

Gogoko zerbitzuak [Antolatu](#)

Jarraian “**Informazio laqapena: informazio fiskala eskatzeko eta kontsultatzeko zerbitzua fitxategiak trukatzuz** aukeratu beharko du, zerga informazioa eskatu, egindako eskaeren egoera ikusi nahiz eskatutako informazioa jaso ahal izateko.

Gipuzkoako Foru Aldundia Euskara | Castellano

Tramiteak eta zerbitzuak Internet bidez
Gipuzkoataria

EGOITZA ELEKTRONIKOA

Giltza Idazki Desktop On-line laguntza SAIOA ITXI

ZERBITZU ERABILGARRIAK
Aukeratu internet bidez egin nahi duzun zerbitzu edo tramitea gure departamentuetan eskura daudenen artean:

- GFA - OGASUN ETA FINANTZA**
 - > Hirugarrenentzako sarbideen kudeaketa - Taula Naqusien mantenimendua
 - > Hirugarrenentzako sarbideen kudeaketa - Baimenen kudeaketa
 - > Hirugarrenentzako sarbideen kudeaketa - Aplikazioetara sartzeko baimenen oniritzia
 - > Informazio laqapena: zerqa informazioa eskatu eta eskuratzeko zerbitzua XML erabilia
 - > Informazio laqapena: banakako ziurtaqiriak eskatzeko eta kontsultatzeko zerbitzua
 - > Informazio laqapena: eskaera masiboak erabiliz ziurtaqirak eskatzeko eta kontsultatzeko zerbitzua
 - > Informazio laqapena: eskrituretara sarbidea
 - > Informazio laqapena: ESKURA

Jende guztia

- > Erabilgarri dauden zerbitzu guztiak

Herri erakundeak

- > Zerga informazioari buruzko tramiteak
- > Hornidura kanalak eta datu ereduak
- > Formularioak


3.- FUNTZIONAMENDUA

Zerbitzu honen bitartez erabiltzaileak baimenduta dituen zerga informazio mota ezberdinak eskatu ahal izango ditu, baita egindako eskaeren egoera ikusi eta eskatutako informazioa jaso ere.

Gipuzkoako Foru Aldundia eu | es

Gipuzkoataria
TRÁMITES Y SERVICIOS POR INTERNET

Sede electrónica@ de la
 Diputación Foral de Gipuzkoa

 Laguntza telefonoa: 902 100 040 | On-line laguntza

ZERGA INFORMAZIO ESKAERA ETA KONTSULTA

Internet bidez zerga informazioa eskatu eta lortu ahal izateko.

Zerbitzu honen bitartez, honako hauek egin ditzake delako Administrazio Publikoak:

- > **Baimenduta dituen zerga informazio motak eskatu**
- > **Egindako eskaeren egoera ikusi eta jaso**

Beren eginkizunak betetzeko zerga informazioa lagatzen zaien Administrazio Publikoei zuzendutako zerbitzua.

<p>Kontsultak eta on-line laguntza:</p> <p>Zerbitzu honekin zerikusia duten prozedurazko arazoak konpontzeko, telefono honetara deitu dezakezu:</p> <ul style="list-style-type: none"> > Telefonoa: 902 100 040 <p>Zalantza informatikoak argitzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> > On-line laguntza 	<p>Ordutegiak</p> <p>Internet bidezko zerbitzuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> > eguneko 24 orduetan <p>Telefono zerbitzua:</p> <ul style="list-style-type: none"> > astehenetik ostiralera 8:00 etatik 15:00 etara.
--	--

Zerbitzuak eta tramiteak internet bidez egiteko aplikazioak sistema segurua erabiltzen du beti. Erabiltzailearen eta atariaren artean transmititzen den informazioa zifratzeko balio du. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi ondoko hau: [pribazitate politika](#) eta [zerbitzari segurua](#).

Aukera nagusiak

- > Zerbitzua hastea
- > Zerga informazioa eskatzea
- > Eskaerak ikusi eta zerga informazioa jasotzea

Zerbitzu honi buruzko informazioa:

- > Aurretiazko beharkizunak
- > Kanalak eta datuen ereduak
- > Formularioak
- > Araudia
- > Erabiltzaileen obligazioen dekalogoak

3.1.- BAIMENDUTA DITUEN ZERGA INFORMAZIO MOTAK ESKATZEKO AUKERA

“**Baimenduta dituen zerga informazio motak eskatu**” hautatuz gero, erabiltzaileak baimenduta dituen informazio mota ezberdinetatik behar duena aukeratu ahal izango du.

ZERGA INFORMAZIO ESKAERA

Eskatu, bere eskumenak gauzatzeko zure entitateak behar duen zerga informazioa.

Zerga informazioa eskatzeko zera egin behar duzu:

- > 1º Erabiltzaile gisa baimenduta dituzun informazio moten artean behar duzuna aukeratu.
- > 2º Informazioa behar duzun pertsonen datuak dituen fitxategiaren izena tekleatu edo fitxategi hori bilatu 'arakatu' botoia erabiliz; eta gero fitxategia bidali.

Erabili zerbitzu hau:

> Beharrezko zerga informazioa eskatzeko.

Eskatu informazioa

Aukera nagusiak

- > Zerbitzua hastea
- > Zerga informazioa eskatzea
- > Eskera ikusi eta zerga informazioa jasotzea

Zerbitzu honi buruzko informazioa:

- > Aurretiazko beharkizunak
- > Kanalak eta datuen ereduak
- > Formularioak
- > Araudia
- > Erabiltzaileen obligazioen dekalogoak

Kontsultak eta on-line laguntza:

Zerbitzu honekin zerikusia duten prozedurazko arazoak konpontzeko, telefono honetara deitu dezakezu:

- > Telefonoa: **902 100 040**

Zalantza informatikoak argitzeko:

- > [On-line laguntza](#)

Ordutegiak

Internet bidezko zerbitzuak:

- > eguneko **24 orduetan**

Telefono zerbitzua:

- > **asteleheneretik ostiralera 8:00** etatik **15:00** etara.

Zerbitzuak eta tramiteak internet bidez egiteko aplikazioak sistema segurua erabiltzen du beti. Erabiltzailearen eta atariaren artean transmititzen den informazioa zifratzeko balio du. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi ondoko hau: [pribazitate politika](#) eta [zerbitzari segurua](#).

Zerga informazioa eskatzeko zera egin behar da hurrengo pantailan:

- Alde batetik, behar duen informazio mota hautatu. Eskuragarri dituen informazio motak honako hauen menpe daude: entitate publikoarekin sinatutako lankidetzak hitzarmenaren eta erabiltzaile horri eman zaion baimenaren menpe.
- Bestetik, igorri nahi den eskaera fitxategia hautatu: horretarako **azertu** botoia sakatuz erabiltzaileak aldeztu aurretik egindako eta ordenagailuan gordetako fitxategia bilatu beharko du (erabiltzailearen PCan edota sareko unitatean).

Gipuzkoako Foru Aldundia eu | es

Gipuzkoataria
TRÁMITES Y SERVICIOS POR INTERNET

Sede electrónica de la
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Laguntza telefonoa: 902 100 040 | On-line laguntza

➤ **ZERGA INFORMAZIO ESKAERA**

> Ziurtagiri mota

Aukera itzazu zure entitateak behar duen informazio mota:

--- Hautatu ziurtagiri mota: ---

© 2006 Ogasun eta Finantza Departamentua - GFA · [Lege charra](#) · [Pribazitate politika](#) · [Zerbitzari seguruia](#) gipuzkoa.net

Bidali beharreko eskaeren fitxategiak ezaugarri konkretu batzuk izan behar ditu eta horri buruzko informazio gehigarria galdera ikurra (“?”), sakatuz lor daiteke.

ESKAERA FITXATEGIAREN FORMATUARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA:

Eskaeren fitxategiak **.txt formatua** izan behar du, titular bakoitzeko erregistro bat (500 erregistro gehienez), datu hauek jasota:

- > Erregistroko **1 - 9 posizioak:**
 - a. Pertsona fisikoa bada: IFZ. 8 digitu + letra. Nolanahi ere, letra jartzea derrigorrezko izango da.
 - b. Pertsona juridikoa bada: 9 posizioko IFK.
- > Erregistroko **10 - 49 posizioak:**
 - a. Pertsona fisikoa bada, titularraren izena, honela osatua: 1. DEITURA, tartea, 2. DEITURA, tartea, IZENA.
 - b. Pertsona juridikoa bada: sozietatearen izena. Oso garrantzitsua da **izen ofiziala** ipintzea, hau da, entitatearen identifikazio fiskaleko txartelean agertzen dena.

GARRANTZITSUA: ez sartu fitxategian karaktere arrotzik, hala nola, @, #, \$, %, *, Tabulazioak.

Igortzen den txt fitxategian IFZ edo IFK zenbaki okerren bat badago, zuzenean pantailan honako mezua agertuko da:

Zergadunen fitxategiak datu okerrak ditu:

- **1. lerroa.** IFZ edo IFK okerra da. (15989831S)

Itzuli

IFZ edo IFK zenbaki guztiak zuzenak izan arte ez da posible izango eskaera fitxategia igortzea.

GARRANTZITSUA:

TXT formatua izan behar du subjektuen datuekin batera igortzen den eskaera fitxategiak (IFZ / IFK eta IZEN-DEITURAK / SOZIJETATE IZENA), hau da, testu soileko fitxategia, karaktere arrotzik gabea (marjinak, tabuladoreak...).

Nola sortu TXT formatuko fitxategia beste mota bateko fitxategitik abiatuta?

- "Ohar-bloka" erabili behar da (NOTE PAD), Hasiera / Programak / Gehigarriak / Ohar-bloka kateari jarraituta.
- Sortutako fitxategia Acces (.mdb) edo Excel (.xls) formatukoa baldin bada ESPORTATU aukera erabiliz bihurtu daiteke .txt formatuko fitxategi.

Argibiderik behar izanez gero, komenigarria da erakundeko informatikariari galdetzea.

3.2. EGINDAKO ESKAEREN EGOERA IKUSI ETA JASOTZEKO AUKERA

Beharrezko egiaztapenak egin eta eskatutako informazioa prestatu ondoren, eskaera fitxategi bakoitzeko erantzun hau jasotzen da:

- Eskatzen den informazio motaren arabera emango du eskaera fitxategian zerrendatutako pertsona eta entitate guztiei buruzko zerga informazioa edota hautaturiko datu batzuk laburpen gisa. Hori guzti osatutako **.csv formatuko** kalkulu-orri batean.
- **Pdf formatuko** fitxategi bat, pertsona kontsultatu guztien informazioaz prestatu ahal izan diren dokumentuen irudiak dituen (pertsona edo entitate bakoitzeko dokumentu bat). Inprimatzeko prestatuta dago, paperean gordetzea behar izanez gero.

Fitxategi hauek behin eta berriz deskargatu ahal dira, muga batekin: azken 30 egunetakoak behar dute izan.

Egoera normalean, informazio eskaeraren erantzuna 24 ordu barru jasotzeko moduan egon ohi da.

Dena den, eskaeren egoera ere ikus daiteke, honako irizpide hauen arabera: denak, jasotzeko daudenak, jasotakoak, egiteke daudenak, eta azken egunetakoak.

Gipuzkoako Foru Aldundia eu | es

Laguntza telefonoa: 902 100 040 | On-line laguntza ITXI

ZERGA INFORMAZIO KONTSULTA

> **Eskaera ikusi eta informazioa jasotzea**

Aukeratu:

Denak Jasotzeko daudenak Jasotakoak Egiteke daudenak

Azken egunetakoak bakarrik..

FRESKATU

▲ Eskaera ▼	▲ Erreferentzia ▼	▲ Prestatuta ▼	▲ Jasota ▼	Deskarga
2007/10/19 10:24	N000002	2007/10/19 17:07	2007/10/22 08:43	
2007/09/20 10:47	N000001	2007/09/20 19:08	2007/09/24 12:30	

1/1

ITZULI

© 2006 Ogasun eta Finantza Departamentua - GFA · [Lege oharra](#) · [Pribazitate politika](#) · [Zerbitzari segurua](#) gipuzkoa.net

Egindako kontsultaren emaitza gisa lortzen den zerrendak xehetasun hauek ematen ditu:

- Eskaera:** eskaera fitxategia noiz bidali den (eguna eta ordua); eta fitxategia bera ikusteko aukera.
- Erreferentzia:** eskaera fitxategiaren jatorrizko izena.
- Prestatuta:** prestatutako informazioarekin osatutako fitxategiak noiz (eguna eta ordua) jarri diren herri administrazioaren esku; edota, oraindik prestatu gabe badaude, "egiteke" mezua.
- Jasota:** herri administrazioak noiz (eguna eta ordua) deskargatu duen azken aldiz informazioa.
- Deskarga:** eskatutako informazioarekin osatutako fitxategiak (.csv eta .pdf formatuetakoak), eskuragarri dauden bitartean nahi adina aldiz deskarga daitezkeenak.